

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Denbora vs. Kantuak.
Keu.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 40'06".
12 euro.

Kantak jaun eta jabe

ONDARROAKO musikari nekaezinak disko bikoitza kaleratu du, eta baliteke lerro hauek irakurri orduko beste lan berriren bat prestatzen aritzea, kostaldeko musikaria bera sorpresa kaxa da-eta. Bere ezkutari fidel Mikel Arakistain baxu jotzailea alboan –ia banaezinak dira eta ondorioz, kimika ikaragarria dute– sustrai amerikarrak eta euskaldunak dituen folka, popa barra-barra eta jazz giroak abestiaren aginduetara jarri ditu. Aginduetara

diot, hemen kanta bera delako jaun eta jabe, kanta xume baina egiazkoa, ia biluzia, bestelakorik gabe. Hitzetan Keuk idatzitako testuez gain, Mikel Etxaburuk, Aitor Goenagak eta Kirmen Uribek ere lagundu dute. Disko honekin batera Durangoko Plateruena Kafe Antzokian formatu berarekin grabatutako emanaldi dotorearen DVDa dakar opari.

www.myspace.com/keuagirretxea

Keu Agirretxea

«Musika niretzat sorpresa kutxa da: beti irrikaz zer agertuko»

Denbora vs. Kantuak. Hainbeste kanta buruan daukazula, sentsazioa duzu ezingo dituzula guztiak kanpora atera?

Inspirazioa den bitartean aprobeixatu egin behar da. Sentsazio berriak bilatzean ideia asko agertzen dira eta hortik abestiak sor daitezke. Idazterakoan diziplinarik ez dut, sekula ez dakidalako noiz etorriko den lehen ideia. Behin etorri gero, lantzeari ekiten diot, jakina.

Lehenengo aldia da folkean, jazzean eta doinu beroetan hainbeste murgiltzen zarena?

2008an grabatu nuen lehen disko akustikoa. Buruan beti izan ditut ideiak, baina nire burua seguru ikusi nahi izan dut estilo konkretu batzuetako abestiak konposatzeko eta lan hori ondo egiteko. Sentsazio berriak dira eta benetan sentitu izan behar dituzu gozatzeko eta bestekin konpartitzeko.



Zure kantez beti dute berezko goxotasuna. Nekatu zinen iraganeko bortizkeriaz eta amorruaz?

Oraindik ez, baina oreka bilatzen dut. Orain adibidez, urtebete daramat Governors taldean zuzeneko bortitzak eskaintzen eta aldi berean Figruh Experience proiektu akustikoarekin areto eta antzokietan justu

kontrakoa egiten, giro lasaiak eta intentsitateak lantzen.

“Nik badut nire mundua”. Zer da musika zure bizitzan? Zertarako balio du?

Sorpresa kutxa bat, ilusioa sortzen dit eta poztu egiten nau. Txikia nintzenean “*Sobre sorpresa*” saltzen zuten denda. Beti irrikaz, zer agertuko. Orain berdina da musikarekin, nolakoa izango da hurrengo abestia? Ikusleekin konektatuko dugu? Hau dena bizitzeak preziorik ez du. Konposizioa, taldeko bizitza, grabazioak, birak... Bizipoza.

“Erantzunik gabeko galderen bide luzean”. Abestiak idazteak erantzunik ematen dizkizu?

Ez, gogoratzen dit erantzunik beti ez direla agertzen, baina aurrera begiratu behar dugula. Bizitza azkar doa eta ezin dugu galdera guztien erantzunen zain egon. ■

